



Gurasoen auzolana baratzean

Gurasoen txokoa Ikastola datuetan
Ikasleen txokoa Bi urtekoei ongi etorria



agenda

IRAILA

LEHEN HEZKUNTZA

LH3-4-5 eta 6 Donostiara Zinemaldira

DBHO

DBHO1 eta 2: Gu ta gutarrak (irteera)

URRIA

HAUR HEZKUNTZA

2 urtekoak Orexaneko parkera irteera

3 urtekoak Delikatuzeko erakusketa ikustera

4 urtekoak Barrenako parkera irteera

4 urtekoak Larraitzera irteera

5 urtekoak Ataungo Urbitarte sagardotegira

LEHEN HEZKUNTZA

LH3 Oiangura, hostoak biltzera

LH4 Lizarrusti Lareo / JM Barandiaran museoa

/ Goierrri ezagutzuz

LH5 Oriara bi egunez izarrak behatzera

DBH

1. maila: Zientzia museora eta Txuri Urdinera

2. maila: Cristina Enea eta Txuri Urdinera

3. maila: Albalola musea eta Txuri Urdinera

4. maila: San Telmo museoa eta Txuri Urdinera

DBHO

DBHO1: LanAldi Proiektua

DBHO2: Orientazioko testak / Hezkidetzak

AZAROA

OROKORRA

Jakintza ikastolako Urteko batzarra

HAUR HEZKUNTZA

3, 4 eta 5 urtekoak azokara baratzerako

landareak erostera

5 urtekoen udazkeneko erakusketa

LEHEN HEZKUNTZA

LH3 San Telmo museora. E.H.ko historia

LH5 Iruñea Planetariumera

LH6 Arrikruz eta Arantzazu

LH6 Sexu heziketa / Hitzaldia gurasoentzat

DBH

3. eta 4. maila serigrafi tailerra

3. eta 4. Giza katea genero indarkeriaren aurka

DBH 3 Antzerkia Donostian

DBHO

DBHO1: AuzolanArte / Emakumeen

Indarkeriaren Aurkako Eguna

DBHO2: Deustoko unibertsitatea (Hitzaldia) /

Unitour (Irteera) / Emakumeen Indarkeriaren

Aurkako Eguna / Movember / Mondragon

unibertsitatea (Hitzaldia)

ABENDUA

OROKORRA

Euskararen eguna / Dantza emanaldia / Santo

Tomas eguna / Olentzerori ongi etorria

HAUR HEZKUNTZA

3, 4 eta 5 urtekoak Mirandaolara

LEHEN HEZKUNTZA

LH6: Durangoko azokara/ Tailerrak eta bisita.

DBH

DBH 3: Berziklapen tailerra.

DBHO

DBHO2: Elgoibarko Makina Herramienta



AMAIA AYERRA
Jakintza ikastolako zuzendaria

Ispilu aurreko ariketa

Azken urte hauetan gela eta maila ezberdinetatik pasa ondoren badira buruan bueltaka daramazkidan kezka batzuk. Mundu globalizatu baten paradigmatic abiatuta, komunikabideek, Internetek eta sare sozialek agertzen diguten errealitatek haratago gu geu, bata bestearengandik bereizten gaituen zer edo zer horren bila hasita, ez dut gehiegirik topatu. Bizitarako konpetentziaz hainbeste hitz egiten den garaian, norbera izaten ikasteak duen garrantzia azpimarratzeko garaia iritsi dela iruditzen zait; norbere burua ezagutzen duena, iritzi kritikoa garatzen duena, bere herria eta kultura senetik bizi eta defendatzen duena, arduratsua, autonomia, errealista, bere emozioak

kudeatzen dakiena... Ez dira ez helburu errazak, ezta hilabete gutxitan landu eta lortzekoak, baina gizarte global eta anitz batean berdintasun eta globalizazioaren ikuspegitik haratago joateko, geurea dena, garena eta izango garenari leku egiteko ezinbesteko bidea da. Norberaren ezagutzak baldintzatzen du gure izatea eta egotea gizartean, taldean, familian, ikastolan, lanean... Ni neu nor naizen, nola naizen, non nagoen, norekin nagoen, nola sentitzen naizen giltzari izango dira ez soilik eskolako eremuetan.

Har dezagun ba tarte bat ispilu aurrean jartzeko eta ikusten dugunaz hausnartzeko!

Batzar Nagusia

Azaroaren 30ean egin zen Jakintza ikastolako Batzar Nagusia. Jakintza ikastolako Artezkaritza Kontseiluak aurrez egin beharreko prestakuntza egin ondoren, informazio guztia bazkideen eskura jarri zuen. Arratsaldeko 18:30ean Villa Eugenia elkartu ziren horrela nahi zuten guztiak.

Urteko Batzarra lasaitasun giroan joan zen eta bertara aurkeztu ziren gai guztiak aho batez onartu ziren. Alde batetik, egoera ekonomikoaren berri eman zen eta bestetik, Jakintza ikastolako emaitza pedagogikoak eta ikasturte berrirako lan ildo nagusiak finkatu ziren.

Batzarra nahiko arin joan zen eta amaiera emateko mahai batzuen inguruan elkartu eta pintxo batzuk probatzeko aukera ere izan zen.

EJERCICIO ANTE EL ESPEJO. Hay un tema que últimamente me inquieta: en este mundo tan globalizado, no encuentro aquello que nos diferencia de los demás. Ahora que se habla tanto de las competencias para la vida, es el momento de resaltar la importancia de aprender a ser nosotros mismos. Tenemos que buscar un espacio para lo que es nuestro, lo que somos y lo que seremos. Tomémonos un tiempo para mirarnos al espejo y reflexionar sobre lo que vemos.

JUNTA GENERAL. El 30 de noviembre se celebró en Villa Eugenia la junta general de Jakintza. La reunión se desarrolló con fluidez y todos los temas tratados fueron aprobados por unanimidad: estado de cuentas, presentación de resultados pedagógicos y líneas generales de trabajo para el nuevo curso.

JAKINTZA DATUETAN

2015-16 ikasturteko datu esanguratsuenak:

848 ikasle lau etapetan eskolaratuak:
 216 Haur hezkuntzan
 365 Lehen hezkuntzan
 218 Derrigorrezko Bigarren hezkuntzan
 49 Batxilergoan

533 familia komunitateko kide

65 profesional ikastolako proiektuan lanean.



Erronkak abiapuntutzat hartuta:

1.- KOMPETENZIAZEN CURRICULUMA ZEHAZTEN:

Zer, nola eta zertarako ikasi
 Zer, nola eta zertarako ebaluatu

2.- FORMAKUNTZA eguneratua eta egokitua.

3.- BARNE ANTOLAKETA: efikaziaren bila

4.- HOBEKUNTZA PLANA: ondorioak ateratzeko garaia

SORMENARI BIDEA

Azaroaren 25ean ekintza berezi bat gauzatu zuten DBHO 1eko ikasleek. Beraien sormena piztea izan zen ekintzaren helburu nagusia. Denok sortzaile gairela sinestaraztea eta beraien barruan duten gaitasun eder hori baliatzea garrantzitsua dela mundua aldatzeko.

Helburua gauzatzen hasteko, artistikoki landu nahi zuten gaia aukeratu zuten. **Gazteak plazara** leloa izan zen haien pentsamendua borobildu zuena. Natur elementuak erabiliz, mosaiko handi bat egin zuten eta **Montaña** plaza elementu sinboliko ezberdinekin jantzi zuten.



JAKINTZA EN DATOS. 848 alumnos escolarizados en cuatro etapas: 216 en educación infantil, 365 en educación primaria, 218 en ESO, 49 en Bachiller. Comunidad escolar formada por 533 familias. 65 profesionales involucrados en el proyecto de la ikastola.

LOS RETOS DE JAKINTZA. Concreción del curriculum de competencias: qué, cómo y para qué aprender; qué cómo y para qué evaluar. Formación: actualizada y adaptada. Organización interna: búsqueda de la eficacia. Plan de mejora: análisis de conclusiones.

EN BUSCA DE LA CREATIVIDAD. El 25 de noviembre, los alumnos de 1º de ESO llevaron a cabo una actividad especial que buscaba incentivar su creatividad, hacerles sentir que todos somos creativos y hacerles ver que utilizar esa habilidad que tienen escondida en su interior es muy importante para cambiar el mundo. Una vez elegido el lema **Los jóvenes a la calle** para desarrollarlo artísticamente, los alumnos crearon un mosaico gigante con elementos naturales y cubrieron la plaza **Montaña** con distintos elementos simbólicos.

HAUR HEZKUNTZAKO BARATZA, GURASOEN AUZOLANAREN EMAITZA

Haur Hezkuntzako baratza beste urrats bat egin du aurtengo ikasturtean. laz egindako hausnarketari jarraipena emanez, eta umeentzako ahalik eta gune eroso eta txukunena sortzeko helburuz, eremuka antolatu dute baratza berria. Guraso asko izan dira egokitze lan horietan aritu direnak, elkarlanean, baratza proiektuaren izaera parte-hartzaileari balio osoa emanez.



Urte batzu-batzuk badira Jakintza Ikastolaren Haur Hezkuntzako eraikinean baratza egiten dutela. Urte askoan udaberri garaian soilik landu da ikasleekin, baina iaz, gogoeta baten ondoren, baratza urte osoan lantzea erabaki zen, garaian garaiko produktuak landatuz. Aurten, berriz, baratza guztia berrantolatu da eremuka, umeek erosoago eta txukunago lan egin dezaten. Zeregin horretan nabarmena izan da hainbat eta hainbat gurasok lanerako eta

parte-hartzeko erakutsi duten borondatea.

Irakasleen laguntzarekin, ikasleen parte hartzea sustatu nahi da baratzarekin, bakoitzaren adinari egokitutako jarduerak antolatuz. Proiektuan 3 urtetik 5 urte bitarteko 8 ikasle taldek parte hartzen dute, eta ikasturte hasieran finkatutako egutegiaren arabera zehazten dute urteko plangintza. Hartara, ikasleek eta haien gurasoek badakite zein egunetan joango diren baratzera.

Eguraldiak laguntzen badu behintzat, astean ordubete eskaintzen diote ikasleek baratzari.

Ikasturte hasieran lur-saila prestatzea, azokan garaian garaiko landareak erosi, landatu eta ereitea, ureztatzea eta landareen hazteko prozesua ikustea dira, besteak beste, baratzeko zeregin aipagarrienak. laz hasitako ibilari jarraipena ematen ari zaio aurten, baratzere-eremua guztia berrituta gainera. Baratza proiektuaren helburuetako bat ere bada hezkuntza

komunitatea osatzen duten kide guztien partaidetza, eta begi bistakoa da gurasoek ondo baino hobeto ulertu dutela mezua. Miriam eta Juani irakasleek, eta baratza berritzeko prozesuan aritu diren lau gurasok eman dizkigute elkarlan horri buruzko azalpenak.

Garaian garaiko uzta

Bost urtekoek Kutxaren Ekogunera, Zabalegira, egiten duten bisitan erabaki zuten iaz irakasleek baratza urte osoan lantzea, Miriamek gogoratu duenez. «Hangoa ikusita, iruditu zitzaigun horrelako lursail bat edukita baratza alferrik galtzen ari ginela. Ikastaro batzuk egin genituen, beste esperientzia batzuk ezagutu genituen, eta aurrera egitea erabaki

genuen». Ordura arte, bost urteko umeen gurasoei lurra prestatzeko laguntza eskatzen zitzairen, eta letxugak, tomateak eta lekak landatu ohi zituzten. «Gehienak letxugak ziren, eta gero umeek etxera eramaten zituzten

oporren aurretik. Baratza horrela gelditzen zen, eta pentsa nola egoten zen irailean», gehitu du Juanik.

Iazko irailean heldu zioten Haur Hezkuntzan urte osoko baratzari, ohiko ereduari. Egin egin zuten, baina eragozpenak ere sumatu zizkieten, Miriamek azaldu duenez. «Ikusten genuen ez zela eroso. Hemen badakigu nolako eguraldia egiten duen, batzuetan baratzera

ezin joan, ume guztiei katiuskak janzen eta erantzen... Esperientzia polita eta baikorra bai, baina gure artean pentsatu genuen egokitu egin behar genuela, denok gustora ibiltzeko, bai umeak eta baita irakasleak ere». Baratze eredu birplanteatzeko balio izan zuen balorazio hark.

Beizamako baratza eskolan ikastaroa jaso, eta proiektu berri baterako jarraibideak esku artean zituztela itzuli ziren irakasleak. «Garbi genuen proiektua gurasoei aurkeztu beharra zegoela eta martxan jartzeko eskulana beharko genuela. Gurasoak gainera gustora ibili ziren iaz baratzatik bueltan», esan du Miriamek. Urriari bilera egin, eta hara ezusteko atsegina, hogeitik gora guraso laguntzeko prest. «Betiko baratzaren egitura hori aldatu nahi genuela esan genien, eta erantzuna oso ona izan da gurasoen partetik, asko inplikatu dira».



AINARA MENDOZA

«Uste dut umeentzat garrantzitsua dela gu ikastolako parte garela ikustea. Gurasoen artean ere harremana egin dugu»



JOSEBA ARRIZABALAGA

«Umeei printzipio onak erakusten dizkietela uste dut; uzta jaso aurretik lana egite hori bizitzarako printzipio ona dela iruditzen zait»

Auzolanaren ordua

Baratzari buruz ezagupena duten gurasoen aholkuak jaso, WhatsApp talde bat sortu, materiala biltzeko zirkular bat pasatu gurasoen artean, eta baratza berria egiteko prozesua martxan zen jada. «Material asko ekarri dute gurasoek; batzuek egurrak, besteek oholak, lauzak... eta beste batzuk erosi egin behar izan dira. Egia esan giro oso polita sortu da baratzaren bueltan, eta guraso batzuk elkar ezagutzeko ere balio izan du. Oso txukun geratu da baratza».

U formako lau eremurik osatzen dute Haur Hezkuntzako baratz berria, eta metro pasako zabalera dute. «Praktikotasuna eta erosotasuna uztartu da, eta polita izatea ere bai. Umeentzat egokitu da. Egia dena da baratzaren helburua ez dela produkzioa izango, orain ale bakar batzuk jarriko ditugu dagokion eremuan. Produktu gutxiago izango dira, baina ezberdinak. Batek porru bat eramango du etxera, beste batek tipula bat... Umeek oso gustora eramaten dituzte produktuak etxera, eta beraien baratzeko denez, batzuk etxean probatzera ere ausartzen dira, nahiz eta gustatu», azaldu du Juanik.

Txabola berri bat ere eraiki dute umeek haien tresnak edukitzeko, eta asmo gehiago ere badituzte esku artean: umeek material ezberdinekin –pinu azalak, harri kaskarrak...– esperimentatzeko txoko bat sortzea, sendabelarrekin hastea, negutegi bat jartzea... Juaniren ustez, lanik handiena eginda dago. «Inportanteena egin da, eta orain nahi duguna da ingurua egokitzen jarraitu. Ideia asko daude, baina poliki-poliki egin beharrekoak».

Umeek ondo pasatzea eta naturarekiko kontzientzia izatea dira baratza proiektuaren helburu nagusiak, baina baita

Baratzea jartzearen helburu nagusiak:

- Talde-lana eta komunikazioa sustatzea eta batez ere, esparru natural batean ikasleek elkarrekin gozatzea.
- Elikadura ohitura osasungarriak bultzatzea.
- Lurrak fruitua emateko, gizakiaren eskua behar duela ohartzea.
- Garaian garaiko produktuak ezagutzea eta gaiarekin lotutako oinarritzko hiztegia ikastea.
- Landareen prozesua esperimintatzea eta landareekiko errespetuan hezitzea.



gurasoekin abiatutako lankidetzari segida ematea ere, eta ez soilik eskulanari begira. «Espero dugu guraso talde hori mantentzea, oso giro politean aritu gara. Horrelako lana egin eta gero, gurasoek baratza beraiena ere badela sentituko dutela iruditzen zaigu. Baratzak bere mantenimendua ere behar du», adierazi du Miriamek.

Gurasoen esanak

Ikasturte hasieratik baratzaren bueltan lanean ari direnetako lau guraso dira Ainara Mendoza, Joseba Arrizabalaga, Joseba Regil eta Ugutz Agirre. Dozena bat izan dira, gutxi asko, lan dinamikan murgilduta egon diren gurasoak. Baratzaren bueltako esperientzia aberasgarria izaten ari dela nabarmendu dute, eta egindako lanarekin harro daudela sumatzen zaie.

Baratzeko projektuan parte hartzeko eskatuz irakasleek bidalitako oharrak «tentazioa» eman zion Mendozari. «Aukera bat iruditu zitzaidan. Hasteko, umeentzat polita da baratza bat edukitzea. Umeek gainera hemen ikusi gaituzte, aurrera eta atzera ibili gara, eta uste dut umeentzat ere

garrantzitsua dela gu ikastolako parte garela ikustea. Gurasoen artean ere harremana egin dugu».

Arrizabalaga ez da ordiziarra, eta baratzeko guraso taldean parte hartuta jendea ezagutzeko aukera izan du. Baratzeko proiektuaren filosofiarekin bat egiten du.

«Baratzean umei printzipio onak erakusten dizkietela uste dut; uzta jaso aurretik lana egite hori bizitarako printzipio ona dela iruditzen zaie».

WhatsApparen bidez komunikatu dira, eta bakoitzak ahal zuenean eta bakoitzak bere neurrian lan egin dutela azaldu du Arrizabalagak. «Batzuk gauza batzuetan moldatzen gara ondo, besteak beste batzuetan...». Funtzionamendu aleatorioa izan da, maiztasun zehatzik gabekoa. «Lanik handiena hasierakoa izan zen, baratza prestatzea, gero umeak bertan hasi ahal izateko. Horretarako elkartu ginen, eta horretan ibili gara ahal zen eran», gaineratu du Regilek.

Eguraldi iragarpenak onak zirela eta, irakasleek «presa pixka bat» sartu zietela ere kontatu dute irribarrez.

«Horregatik izan daiteke, baina baratza egiteko materiala nahiko azkar lortu zen», gogoratu du Agirrek. «Oso ondo gelditu da baratza, praktikoa, txukuna... atentzioa ematen du». Haur hezkuntzan ikusmina piztu du baratza berriak, auzolanak fruituak eman ditu gurasoen artean, eta horri eustea izango da aurrera begirako erronka.



JOSEBA REGIL

«Lanik handiena hasierakoa izan zen, baratza prestatzea, gero umeak bertan hasi ahal izateko»



UGUTZ AGIRRE

«Oso ondo gelditu da baratza, praktikoa, txukuna... atentzioa ematen du»



El huerto, fruto del trabajo de padres y madres

Hace ya varios años que los alumnos de Infantil de Jakintza tienen huerto. En un principio se plantaba solo en primavera, pero el año pasado se decidió extender el trabajo a todo el año y obtener así productos de distintas temporadas. Ello ha requerido su reorganización por áreas, para facilitar las actividades de los pequeños. Muchos padres y madres se han involucrado activamente en ese trabajo.

En el proyecto del huerto participan 8 grupos de alumnos de 3 a 5 años. que, si el tiempo acompaña, le dedican una hora a la semana. Al principio de curso han trabajado en la preparación de la tierra, en la compra de planta de temporada en el mercado, en la plantación y la siembra, en el riego... Estas actividades se desarrollan bajo la dirección de los profesores, pero el proyecto necesita la colaboración de toda la comunidad educativa de la ikastola. Y este es un mensaje que ha calado hondo en muchos padres y madres. Las profesoras Miriam y Juani y cuatro de esos padres y madres nos han explicado en qué consiste esa colaboración.

La decisión de ampliar el proyecto del huerto a todo el año se tomó tras la visita realizada por los niños de 5 años al Ekogune de Kutxa, a Zabalegi. Miriam recuerda que tras ver aquellas instalaciones se dieron cuenta de que el huerto de Jakintza estaba desaprovechado. Hasta entonces sólo se plantaban lechugas, tomates y vainas, que se recolectaban antes de las vacaciones. «Al volver en septiembre el huerto estaba en muy mal estado», comenta la andereño Juani. El huerto de todo el año se puso en marcha en septiembre del año pasado, pero en los meses siguientes se dieron cuenta de que era muy incómodo para los alumnos, especialmente cuando llovía y había barro. Por eso, pensaron que había que organizarlo de otra manera. Una veintena de padres y madres ofrecieron la mano de obra necesaria y en octubre de este año empezaron los trabajos.

El nuevo huerto de Infantil de Jakintza ya está en marcha. Tiene forma de U y está dividida en cuatro espacios. «Se ha buscado la funcionalidad y la comodidad para los niños», explica Juani, que comenta que además ha quedado muy bonito. También han construido una pequeña chabola para guardar las herramientas. Ya se han plantado unas pocas plantas. Dentro de poco tiempo los pequeños podrán llevar a casa el puerro, la cebolla... que han plantado, cuidado y recolectado ellos mismos.

El objetivo principal del huerto es que los niños lo pasen bien y que se conciencien sobre la importancia de la naturaleza. Pero ahora se ha sumado un objetivo más, que no es otro que mantener el grupo de padres y madres que se ha formado en torno al proyecto. Ainarra Mendoza, Joseba Arrizabalaga, Joseba Regil y Ugutz Agirre son algunos de esos padres y madres. Los cuatro coinciden al señalar que ha sido una experiencia enriquecedora y se les nota que están orgullosos con el trabajo que han hecho. Mendoza señala que al recibir la solicitud de colaboración por parte de los profesores se sintió tentada desde el primer momento y que no quiso desaprovechar la oportunidad de ayudar y mostrar así a los niños que ellos también son parte de la ikastola. Arrizabalaga, que no es ordiziarra, vio la oportunidad ideal para conocer a otros padres y madres, además de ayudar en un proyecto con cuya filosofía está de acuerdo: «trabajar para recoger». Regil, por su parte, explica que el trabajo más importante, la preparación del huerto, ya está hecho, y Agirre añade que, además, ha quedado muy bonito y práctico.

2 URTEKOAK, ONGI ETORRIAK



Bi urteko txikitxoak izan ohi dira gure ikastolan begirada, laztan eta muxu gehien jasotzen dituztenak gainerako haurrengandik. Bi urtekoei irakasteko eta laguntzeko denak beti prest; izan ere, 3, 4 eta 5 urtekoak handiak sentitzen dira hauen ondoan eta gogorarazi egiten diete nonbait beraiek txikiagoak zireneko uneak. Eta txikiak, berriz, pozik eta gustora handiagoen ikuttuak jasotzen eta gertutik gertura hauen mugimendu guztiak jarraitzen. Horrela asko ikasten baita!

Aurtengo ikasturteari 31 ikaslek eman diete hasiera eta Maite, Amaia eta Miriam andereñoen mimo eta esku onari esker oso ondo egokitu dira ikastolako eguneroko bizitzara.

-Ze pozik etortzen den ikastolara!- esaten dute guraso zein aitona-amonek. Izan ere, ikastolan taldean ekintza ugari eta desberdinak egiteko aukera handia dute: gelan zein gelatik kanpo jolastu, tenperekin saltsan ibili, psicomotrizitate gelan saltoka ibili, bideo gelan, besteak beste, hainbeste gustatzen zaien Pingu ikusi, ipuinak entzun eta eguraldiak laguntzen duenean, kalera atera herria ezagutzera...

Bazkaldu eta siesta egiteko, berriz, ikastolan bertan dute aukera. Tripa bete eta lo kuluxka egin eta gero, berriro jolaserako pronto. Txikiak baino bizi-biziak baitira gure txikitxoak!



Los niños y niñas de 2 años, los más pequeños, son los que más miradas, besos, y caricias reciben, sobre todo de los *mayores*, los que tienen 3, 4 y 5 años. Todos juntos, aprenden más. Este curso han empezado 31 txikis, y en los pocos meses que llevan en Jakintza con las andereños Maite, Amaia y Miriam, se han adaptado estupendamente a su marcha diaria. Padres-madres y abuelos dan testimonio de ello: «¡Qué contentos vienen!». Motivos no les faltan, ya que a lo largo del día desarrollan muchas actividades, tanto dentro como fuera del aula: ténpera, psicomotricidad, videos, entre ellos los de Pingu, cuentos, paseos... También pueden quedarse a comer y hacer la siesta, para reponer fuerzas y seguir jugando y aprendiendo.

LEHENENGO MAILA, DINOSAUROEN BILA

Neguko ilunabarra zen eta hantxe geunden, galduta, ohian ezezagun baten landareria erraldoiaz inguratuta. Egia ote zen gure begiak ikusten ari zirena? Hamaika aldiz amestuta eta azkenik lortu genuen tramankulu madarikatu hark, behingoz, denboran zehar norabait salbu eramatea. Non ote ginen? Ez zen, ez, inongo soinurik entzuten, harik eta hortz zorrotzez beteriko barail anker hura agertu eta bere orro beldurgarriak entzun arte. Berehalaxe ohartu ginen Jurasikoan geundela; dinosauroen garaian!!! Gure aurrean espektakulu ikaragarria agertu zen: haragi puska hura, etengabeko mugimendu erasotzaileetan, harrapakinare baten bila zebilen. Eta gu bere hamaiketakoa ginela ohartu ginererako, jolas garaia bukatuta zegoen. Orduan, andereñoa hurbildu zitzaigun gelara igotzeko aginduarekin. Kaka zaharra!

DA!

Durangoko azoka bada, ala ez da? Bai, bada! Nirea, zurea, gurea da! Euskalduna da! Mundiala da! Sorkuntza da! Nortasuna da!

Horrela erantzungo lukete 6.mailako ikasleek Durangoko azokari buruz galdetu ezker. Izan ere, lehengo abenduaren 6an hara joan ziren gure neska-mutilak eta ezin hobeto pasatu zuten.

Landako gunera iritsi orduko "Saguganbara"ra, magia eta irudimenez betetako lekura, joan ziren. Hemen "Zirikitutik" deituriko tallerrean hartu zuten parte. Bertan, haur eta gazteek irakurtzen eta entzuten dituzten ipuin, liburu eta kantuek transmititzen dituzten baloreak aztertu zituzten, generoaren eta sexualitatearen ikuspegitik.

Ondoren, denborarik galduta gabe eta arropaladan, liburu, kantu eta mila koloreetako eskaintzen itsasoan murgildu ziren blai egin arte. Ez dakigu behar bezala bazkaltzeko astirik hartu zuten ere.

Gustura itzuli ziren etxera erosketa eta oroigarri mordoekin. Galdetzen badiezu azokaren berri, GOZAGARRIA DA! Izango da haien erantzuna.



IKUSMENA ETA IKASTEKO GAITASUNA

Izenburu horrekin hasiera eman zion ikusmenari buruzko hitzaldiari Argider Jauregik, optiko optometristak. Gurasoei eta irakasle azaldu zigun ikusmena zein garrantzitsua den, batez ere, ikaste-prozesuarako. Lehendabizi, ikuste-sistema egokia eduki behar dugu, bestela estresa sor daiteke. Horrela, Argiderren hitzetan, sintoma batzuk ager daitezke, besteak beste: buruko minak, begietako nekea, lepoko tentsioa, lausotu edota bikoizturik ikustea, ulemen-arazoak, ezin adi egotea... Eta horiei erreparatu beharko genieke diagnostiko goiztiarra egiteko. Bestalde, umeei gorputzaren eskema integraturik izan behar dute, espazioan eta denboran orientatzen jakin ahal izateko, eta hori, neurri handi batean ikusmenaren bitartez lorzen da, baita gure garunera iristen den informazioaren zati handia ere.

Gaur egun eskola porrota ikusmen arazoekin erlazionaturik egon daitekeela ikusita, badira, urte batzuk Jakintza ikastolak, Argiderren bitartez, LH1.eko umeei diagnostiko-probak egiten dizkiela. Proba horien helburua sor daitezkeen arazoak garai detektatzea eta irtenbidea ahalik eta azkarren jartzea da.

DANTZATUKO!

Dantza komunikazio modu bat da. Dantzariak sentimendu eta keinuekin bere egoera adierazten dute. Alai eta gustura gaudenean dantzan hasi ohi gara, gure gorputzek eta begiradek inguruan dugunarekin pozik gaudela adierazi nahi dute. Guztiok sintonia bertsuan mugitu ohi gara. Barren barrenetik ateratzen zaigun sentimendua da dantza.

Abenduaren 3a, Euskararen eguna, dantzatzu ospatzea erabaki dugu eta Euskararekin kantuan eta dantzan aritu gara egun guztia. Euskararekin edozein dantza dantzatu daiteke. Edozein dantza? Bai, bai edozein dantza, arin-arina, porrusalda, fandangoa, kalejira, makil dantza, agurra... eta aretokoak? Bai horixe! Merengea, salsa, vals, break dance-a... eta hip-hop-a? Baita ere. Eta zumba? Baita ere. Edozein dantza egin daiteke Euskararekin.

Garai batean, dantza eskean joan eta ezezkoa jaso ezker *kalabazak* ematea esaten genion. Ziur gaude Euskarak ez digula inoiz kalabazarik emango eta guk ere ez Euskarari, jakina. Dantzatuko?



- **Un dinosaurio en primer curso.** La máquina del tiempo nos ha trasladado a una selva desconocida, silenciosa y repleta de vegetación. ¿Dónde estamos? De repente, escuchamos un gran rugido. ¡Es un dinosaurio! ¡Estamos en el Jurásico! El dinosaurio tiene hambre y vamos a convertirnos en su cena. Pero... Se ha acabado el recreo y la andereño nos ha llamado a clase. ¡Qué pena! - El 6 de diciembre los alumnos de 6º de Primaria visitaron la **Feria de Durango**, donde participaron en distintos talleres y recorrieron los stands de Landako. Sin apenas tiempo para comer, regresaron llenos de compras y recuerdos. - La óptico-optometrista Argider Jauregi ofreció una charla sobre **la importancia de la vista en el proceso de aprendizaje**. Hace ya unos años que Jakintza realiza pruebas de diagnóstico a los alumnos de 1º de Primaria en colaboración con Argider. - ¿Bailas? Nosotros hemos celebrado bailando el **3 de diciembre, Día del Euskara**. El euskera no nos dará nunca calabazas, y nosotros tampoco al euskera.

ON VA FAIRE QUOI À LA IKASTOLA?

DBHra iristen direnean, zenbait ikaslek hautazko ikasgaien artean frantsesa ikastearen aldeko apustua egiten dute. «Pentsatzen ikasi eta komunikatzen ikasi» deituriko kompetentzia metadisziplinarrekin ezinbesteko lotura du hizkuntza berri baten jabetze-prozesuak. Ikasleak beraien ingurukoa miatzeko eta ezagutzeko aukeraz baliatu ahala, hizkuntza ahozko zein idatzizko komunikazio-tresna bilakatzen dute. Berezko helburua duen tresna: gozatzea, informazioa eskuratzea, iritziak partekatzea, arazoei irtenbideak bilatzea,... Hizkuntza berriaren jabetze-prozesu hori, benetako komunikazio-testuinguru batean suertatzen da. Eta ikasleen arteko interakzio-egoera horiek klaseko lan-giro egokian bultzatzen direnez, oso onuragarri suertatzen dira.



KALERA

Emakumeen aurkako indarkeriaren kontra irten ziren azaroaren 25an DBH3ko ikasleak. Garagarza plazan ekitalditxo bat eskaini zuten Jack Kerouack-en *Brindemos por las locas* eta Uxue Alberdiren *Konplize ditut eta maite ditut* denak poemak errezitatu.

Horrez gain, DBH3ko ikasleek adreilu bana margotu dute gai honen aurkako mezuak zabaldu asmoz. Adreilu horiek osatutako mosaiko eder bat jarri dute ikastolako sarreran.



GIZA ESKUBIDEAK LANTZEN



DBH 1eko ikasleek proiektu berri bat gauzatu dute Giza eskubideen inguruan. Astelehen arratsaldetan bi orduz jarraian, elkarrekin aritu dira bi gelak. Lanketa talde lanean egiteko zegoen pentsatuta eta hiru hilabete osoan zehar joan dira proiektua garatzen eta forma ematen. Horretarako jarduerak ezberdinak egin dituzte. Hasteko informazioa bildu, Giza eskubideen inguruan lanean ari diren pertsonekin

elkartu, elkarriketa bat egin. Potto irratan zintzilikatu. Sketch txiki batzuk egin bakoitzak hautatu duenaren inguruan. Arte lan ere osatu du talde bakoitzak. Azkenik, giza eskubideen urraketaren inguruan, talde bakoitzaren konpromisoa zehaztera eta idaztera iritsi dira. Lanketa interesgarria izan da eta ziur gaude baliagarria izango dela Elkarrekin bizitzen hobeto jakiteko

TEODOLITOIA

Ebaluazio honen bukaeran eta Trigonometria gaiarekin lotuta, DBH4ko ikasleek teodolito bat eraiki dute. Taldeetan antolatuta eta trigonometriaren alderdi praktikoa azpimarratu nahian, neurgailu mekaniko optiko hau erabiliko dute, angeluak eta distantziak neurtzeko. Teodolitoa osatzeko, angelu graduatzailea, plomuak, lenteak, beraiek eraikitako tripodeak... erabili dituzte. Ibaiaren zabalera eta Fray Andres estatuaren altuera neurtzea izango dira irakasleak planteatu dizkien zereginak.



- **El francés** es una asignatura optativa en Secundaria. En el aprendizaje de este idioma se parte de la observación del entorno y de un contexto de comunicación real. Se trata de una competencia metadisciplinar conocida como «aprender a pensar, aprender a comunicar». - **El 25 de noviembre** los alumnos de 3º de ESO salieron a la calle y con un recital de poesías en la plaza Garagarza y la elaboración de un mosaico reivindicativo que se ha instalado en la entrada de la ikastola se unieron a la celebración del Día internacional contra la violencia hacia las mujeres. - Los alumnos de 1º de Secundaria han participado en un proyecto sobre los **derechos humanos** en el que a lo largo del trimestre han llevado a cabo varias actividades como entrevistas a personas involucradas en el tema y la elaboración de cuñas para emitir por Potto irrati. - **Con el teodolito** (aparato de medición mecánico óptico) elaborado en trigonometría, los alumnos de 4º de ESO han podido medir la anchura del río y la altura de Fray Andrés.

irteera



Oriora Orion ikustera

Unibertsoa, galaxiak, planetak, izarrak... Ilargian ote gaude? Ilargian ez, baina martetar samarrak bagarenez, ikasturteari hasiera eman nahi izan genion irteera bat antolatuz: izarrak behatzera.

Ostegun batez irten ginen ikastolatik. Orioko Txurruka aterpetxean maletak eta traste denak utzita, herriaren inguruan zehar doan bide batean txangoa egin genuen. Paseo lasaian, elkar ezagutu, barrez, hitz egin... Finean, egunerokotasunak markatzen dizkigun irakasle eta ikasle rolak apurtzea izan zen helburuetako bat. Kantauri itsasaren magalean buelta harturik, Getariako sagua urrun gertuan, hondartzara iritsi ginen. Ori ibaiaren bokaletik gora hartu eta parke eder batean bazkaldu genuen. Ondoren, pixkanaka-pixkanaka, aterpetxera inguratu ginen. Bertan, geletan kokatu eta lekuak eskaintzen dituen baliabideei etekina atera genien: futbola, saskibaloia, mahai-tenisa, boleibola...

Gauean, gure irteeraren bigarren helburu nagusiari heldu genion: gaueko zerua behatzea. Zorionez, eguraldia aparta zen horretarako, eta behin gure begiak iluntasunera ohitu zirenean, unibertsoak eskaintzen digun espektakuluaz gozatzeko aukera izan genuen. Aagian, toki hura ez zen egokiena izan, inguruko mendixkek ikuspegi zabal bat izatea oztopatzen baitzuten. Baina hainbat konstelazio ikusteko eta ezagutzeko parada izan genuen: Kasiopea, Arturo... Eta gainontzekoak, gutxi gorabehera non zeuden asmatu ahal izan genuen, planisferio baten laguntzaz: Hartz Nagusia, Hartz Txikia, Iparrizarra... Eta baita Orion ere! Hantxe ginen, Orion Orion konstelazioa bilatzen!

Baina mundu honetan dena ez da lana (ezta unibertsoan ere!), eta behaketa eta gero dantzaldi txiki bat antolatu genuen, dantzan erabat nekatzeko eta lo goxoa hartzeko.

Hurrengo goizean, hainbat jolasetan aritu ginen. Eta bazkalostean etxera itzultzea tokatu zitzaigun.

Orain, unibertsoari buruz zerbañt gehiago dakigula uste dugu. Bere handitasunak gure txikitasuna agerian uzten duela ikusi dugu. Eta gure txikitasunetik, pertsona handiak izan gaitzkeela ulertu dugu, baldin eta ingurukoak errespetuz hartzen baditugu, elkar ulertu, onartu eta laguntzen baditugu.



Ikastola zaharreko patioan ateratako argazkia 1970. urtean.

IKASTOLAKO OROITZAPENAK

Argazki hau lehen aldiz ikustean irripar egin nuen. Irripar, nire txirikordak ezagutu nituelako, eta irripar, Lutxi andereñoaren goxotasuna gogoratu nuelako.

Lutxi izan zen gure lehenengo andereñoa, eta guretzat bera zen andereñorik txintxoena.

Dena den, ikastolako lehen egunean ez zitzaidan hori iruditu. Izan ere, nirekin batera gelan zeuden nire bi lehengusuak, Bernardeth eta Jose Martin, eskutik hartu, ikastolatik ihes egin eta nire etxera joan ginenean!!

A zer nolako sustoa hartu zuen nire amak! Eta ondoren Lutxik, hirurak nire amarekin Ikastolara bueltatu ginenean!

Zer pentsatu ote genuen modu horretan Ikastolatik ihes egiteko!

Zorionez lehenengo eguneko kontua izan zen, eta aurrerantzean, Lutxi andereñoari esker, pozik eta gustora joan ginenean Ikastolara.

Ana Oiarbide



jakintzaikastola

Altamira auzoa z/g

tfno. 943 16 05 40

faxa. 943 16 07 90

20240 ORDIZIA

ordizia@ikastola.net

